Zumaiako Udala

2013IAKU0009-004-001

**70. OSOKO BILKURAKO AKTA**

Zumaiako herrian, 2013ko irailaren 26an, arratsaldeko zazpietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

**Lehendakaria:** Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jn.

**Bertaratutako zinegotziak:**

Iñaki Ostolaza Esnal jn
Arritokieta Gonzalez Elosua and.
Azis Alberdi Zaldunbide jn.
Eneko Agirre Maiora jn.
Maitane Agirre Arrieta and.
Montse Arana Perez and.
Xabier Gallastegi Idigoras jn.
Edurne Egaña Manterola and.
Juan Carlos Cendoya Aizpurua jn.
Isidro Fernandez Echave jn.
Aitor Leiza Alberdi jn
Emiliano Cabañas Gonzalez jn.

**Ez bertaratuak**

**Idazkaria:** Gorka Urgoiti Agirre

**Kontu-hartzailea:** Mikel Zubizarreta Elicegui



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

## EGUNEKO AZTERGAIAK

## 1.- PERU FERNANDEZ-ARROIABE TXAPARTEGI jaunak, EH-BILDU TALDEAREN ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA.

Alkateak Peru Fernandez-Arroiabe aurkeztu du eta, besterik gabe, plenoaren aurrean Peru Fernandez-Arroiabek zinegotzi kargua hartu du.

## 2.- <u>OGASUNA</u>

## 2.1.- ZUMAIAKO UDALAREN 2012ko KONTU OROKORRAK ONARTZEA, BIDEZKO BADA

**<<2013KO IRAILAREN 17KO KONTUEN BATZORDE BEREZIKO <u>IRIZPENA</u>: 2012KO KONTU OROKORRA ONARTZEKOA BURUZKOA**

**Kontuen Batzorde Bereziko txostena eta irizpena , 2012ko Kontu Orokorrari dagokion onarpenari buruz, kontuan izanda jendaurrean 15 egunetan egon dela eta ez direla aurkeztu, ez erreklamaziorik, ez ingerak zein oharrak.**

**KONTUEN BATZORDE BEREZIKO TXOSTENA: 2012KO KONTU OROKORRAK**

2013ko irailaren 17an 18:20ean bildu zen Kontuen Batzorde Berezia eta honako hauek bertaratu ziren:

- Arritxu Gonzalez (BILDU)
- Montse Arana (EAJ)
- Edurne Egaña (EAJ)
- Emiliano Cabañas (PSOE)
- Aitor Leiza(Aralar)
- Miguel Zubizarreta Elicegui: Kontu-hartzailea.

Kontu-hartzaileak Kontuen Batzorde Bereziari azaldu dio: Kontu Orokorra eta Kontuen Batzorde Bereziaren hasierako txostena, jendaurrean azaldu dela 15 eguneko epean, eta epe horretan interesatuek ez dutela aurkeztu erreklamaziorik, ez ingerak zein oharrak; eta Kontu Orokorra Osoko Bilkuraren onespean jarri behar dela.

Edurne Egañak( EAJ) dio Kontu Orokorra teknikoki ondo iruditu zaiola baita esaten du ere, ez dagoela ados aurrekontuari eman zaion erabilerarekin, hots, zertan gastatu den aurrekontua.

Bestalde Emiliano Cabañas (PSOE) ados dago Kontu Orokorra teknikoki ondo landuta egotearekin, baina desadostasunean, haren arabera, hasierako esanahia indargabetu duten kredituko aldaketak egin direlako.

**>>**



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

Arritokieta Gonzalezek (BILDU) adierazi du Alkateak Kontu Orokorra osatu duela eta Kontu-hartzailearen txostenarekin Kontuen Batzorde berezitik pasa zela uztailaren 16an. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta alegaziorik ez dela egon eta, hortaz, plenora ekartzen dela. Ondoren, 2012 ekitaldia positiboa izan dela adierazi du….

Edurne Egañak (EAJ-PNV) esan du likidazioak agerian jartzen duela kontuen kudeaketa ona ala okerra izan den. Eurek ez daudela ados edukiarekin nahiz teknikoki ondo egon.

Emiliano Cabañasek (PSE-EE) esan du politikoki ados ez dagoela kontuek adierazten duenarekin, nahiz eta teknikoki ados egon.

**ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **13 boto** (6 BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 PSE-EE, 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **0 boto**

**Erabakia**: Zumaiako Udalaren 2012ko kontu orokorrak onartu dira.

---------------------------

**2.2.- 8. KREDITU ALDAKETATIK AURRERA GAUR EGUNARTE 2013KO AURREKONTUETAN EMAN DIREN KREDITU ALDAKETAK JAKINARAZTEA.**

Arritokieta Gonzalezek (BILDU) Munigexekin eguneraketa prozesu bat tarteko kreditu aldaketan zenbakiak aldatu egin direla esan du, baina zenbakiak zenbaki, kreditu aldaketen berri ematen duela.

---------------------------

**3.- <u>HIRIGINTZA</u>**

**3.1.- UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN ORDENANTZAN SARTZEKO KLAUSULA BERRIA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

**<<2013KO IRAILAREN 23KO HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZU BATZORDEAREN IRIZPENA, ETXEBIZITZA TASATUEN UDAL ORDENANTZAN SARTZEKO KLAUSULA BERRIA ONARTZEA.**

**AURREKARIAK**

**1.-** 2008ko azaroaren 6ko ezohiko batzarraldian Osoko Bilkurak Udal etxebizitza tasatuen ordenantzari hasierako onarpena eman zion. Agerraldi publikoa igarota, behin betiko onarpena eman zitzaion. Behin betikotasunaren onarpenaren berri 2010eko ekainaren 11ko (109 zbk.) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman zen.

Ordenantza honek Zumaiako Udalerriko «Udal Etxebizitza Tasatuen» babes publikoko erregimen juridikoa zehaztea du xede.

Zumaiako udalerrian «Udal Etxebizitza Tasatuak (UET)» izango dira, beren salmenta edo alokairu prezioa mugatua izateagatik eta Ordenantzan zehaztutako gainerako baldintzak beterik, Udalak halakotzat hartzen dituenak. Etxebizitza bakoitzarekin loturiko garaje eta trastelekuetara ere zabaltzen da «Udal Etxebizitza Babestuaren (UET)» izaera.

**2.-** Eguneko higiezinen sektorearen egoera aintzat hartuta, ordenantza tresna eraginkor bihurtzeko, ezinbestez egitate berrietara egokitu behar du eragin eremua zabalduz. Zehazkiago, ordenantzaren irizpideak jarraitutako prozedura publikoa gauzatuta, etxebizitza soberakinak suertatuko balira.

Halatan, bada, udal etxebizitza tasatuak eskuratzeko onuradunek bete beharreko baldintzak, ordenantzaren 13. artikuluan jasotakoak, alegia, ordezko izaera duen klausula bitartez horietako zenbait zabaltzeko/malgutzeko ahalmena ematen zaio udalari. Ordezkotasun printzipioaren arabera ahalmen hori jatorrizko irizpideak bete ondoren soilik, erabili ahalko da.

Hori guztiagatik, bada, aipatu artikuluan ondorengo klausula sartzea proposatzen da:

**<<***1. paragrafoan jasotako gutxieneko baldintzen araberako esleipen prozedura publikoa jarraitu bada eta etxebizitza soberakinik balego, ezin izan direlako esleitu, eta egitate hori behar bezala egiaztatua geratuko balitz, orduan, Udalak ahalmena izan dezake: 1. b) atalean adierazitako etxebizitza beharra berriro definitzeko, eta/edo 1. c) atalean jasotako erroldatze baldintza Euskal Autonomia Erkidegora zabaltzeko eta/edo 1. d) ataleko gehienezko zein gutxienezko diru-sarrerak doitzeko***>>**

**IRIZPENA**

Ondorioz, 2013ko irailaren 23ko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Iñaki Agirrezabalaga (Bildu)
Maitane Agirre (Bildu)
Emiliano Cabañas (PSEE)
Aurka:
Abstentzioa: Isidro Fernandez (EAJ)

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo soila beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- Udal Etxebizitza tasatuen ordenantzaren 13. artikuluan ondorengo klausula sartzea:

**<<***1. paragrafoan jasotako gutxieneko baldintzen araberako esleipen prozedura publikoa jarraitu bada eta etxebizitza soberakinik balego, ezin izan direlako esleitu, eta egitate hori behar bezala egiaztatua geratuko balitz, orduan, Udalak ahalmena izan dezake: 1. b) atalean adierazitako etxebizitza beharra berriro definitzeko, eta/edo 1. c) atalean jasotako erroldatze baldintza Euskal Autonomia Erkidegora zabaltzeko eta/edo 1. d) ataleko gehienezko zein gutxienezko diru-sarrerak doitzeko***>>**



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

Alkateak gaia aurkeztu du; krisi ekonomiko garai hauetan eta etxebizitza soberakinei irtenbidea emate aldera, ordenantzan ordezko klausula bat sartzea komenigarria ikusten dela. Nolanahi ere, klausula indarrean sartuko litzateke bakarrik, aurreko baldintzak eskatutako prozesua gauzatuta soberakinak egongo balira.

Xabier Gallastegik (EAJ-PNV) adierazi du 1 c) puntuarekin ez daudela ados, ez baitute ondo ikusten zumaiarrek lehentasuna ez edukitzea, beraz puntu hori kentzea eskatzen dute.

**ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **8 boto** (6 BILDU, , 1 PSE-EE, 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **5 boto (**5 EAJ-PNV)

**Erabakia**: Udal Etxebizitza tasatuen ordenantzaren 13. artikuluan ordezko klausula sartzea onartu da.

----------------------------

**3.2.- 07-HA ARDANTZABIDEKO 7.1 ETA 7.2 PARTZELATAN ETXEBIZITZEN –UDAL SALNEURRI TASATUAN- ZOZKETATIK SUERTATUTAKO ETXEBIZITZA SOBERAKINAK ESLEITZEKO ERREGISTRO IRAUNKORRA IREKITZEA ETA ETXEBIZITZEN ONURADUN IZATEKO BALDINTZEN ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA**

**<<2013KO IRAILAREN 23KO HIRIGINTZA BATZORDEAREN IRIZPENA:**

**07 HA-ARDANTZABIDEKO 7.1 ETA 7.2 PARTZELATAN 32 ETXEBIZITZEN –UDAL SALNEURRI TASATUAN- ZOZKETATIK SUERTATUTAKO ETXEBIZITZA SOBERAKINAK ESLEITZEKO ERREGISTRO IRAUNKORRA IREKITZEA ETA ETXEBIZITZEN ONURADUN IZATEKO BALDINTZEN ALDAKETA ONARTZEA.**



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

**AURREKARIAK**

1.- 2012ko uztailaren 26ko ohiko batzarraldian, Osoko Bilkurak, besteak beste, 07 HA-Ardantzabideko 7.1 eta 7.2 lur-zatiak eskualdatzeko eta 02 HA-Puntanoetan estalitako frontoia eraikitzeko espedientea onartu zuen. Esleipenerako era lehiaketa, tramitazioa ohikoa eta prozedura irekia izan zen.

7.1 eta 7.2 partzeletan 38 etxebizitza eraiki daitezke, eta horietatik 6 babes ofizialekoak izango dira; beste 32 etxebizitzak, berriz, udal salneurri tasatuan esleituko dira.

2.- 2012ko abenduaren 26ko ezohiko batzarraldian Osoko Bilkurak, besteak beste, aipatu kontratu SUKIA ERAIKUNTZAK S.A enpresari esleitu zion. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-dekretu bidez onartu zenak, 154. artikuluan adierazitakoari jarraiki Kontratuaren formalizazioa argitaratu zen 2013ko urtarrilaren 30eko GAOn (20 zk.)

3.- SUKIA ERAIKUNTZAK aurkeztutako proposamenaren baitan, kontratua betetzea ondorengo baldintzari lotzen zaio: urtebeteko epean 26 etxebizitza tasatu gutxienez saltzea. Horrela gertatuko ez balitz kontratuak ez luke eraginik izango.

4.- Onartu ziren oinarrien xedea da Zumaiako AU07 Ardantzabide eremuko 7.1 eta 7.2 lursailetan eraikiko diren itundutako prezioko 32 etxebizitza, guztiak garaje eta trastelekuarekin, zozketatzeko baldintzak ezartzea.

2013ko otsailaren 18ko Hirigintza Batzordean Oinarriei buruzko informazioa eman zen.

5.- 2013ko apirilaren 30eko 251/2013 Alkate Dekretuaren bidez, Zumaiako AU.07 Ardantzabide eremuko 7.1 eta 7.2 lursailetan eraikiko diren itundutako prezioko 32 etxebizitza, guztiak garaje eta trastelekuarekin, zozketarako onartuen behin-behineko zerrenda onartu zen

Era berean, esleipendunak aukeratzeko zozketa publikoa deitu zen 2013ko maiatzaren 29an, eguerdiko 12.00etan, Zumaiako udalbatza aretoan.

6.- 2013ko maiatzaren 29an, 12:00tan, Zumaiako udaleko pleno aretoan, Zumaiako AU.07 Ardantzabide eremuko 7.1 eta 7.2 lursailetan eraikiko diren itundutako prezioko 32 etxebizitzen, guztiak garaje eta trastelekuarekin, behin behineko esleipendunen hurrenkera zehazteko zozketa egin zen notario aurrean.

7.- Zozketaren zerrenda kontuan izanda SUKIA ERAIKUNTZAK S.A.- etxebizitzen salmenta prozedura martxan jarri du. Urtebeteko epean 26 etxebizitza tasatu gutxienez ez saltzeko arriskuaren aurrean SUKIA ERAIKUNTZAK S.A. ondorengo eskaria egiten du:

<<07 HA-ARDANTZABIDEKO 7.1 ETA 7.2 PARTZELATAN 32 ETXEBIZITZEN –UDAL SALNEURRI TASATUAN- ZOZKETATIK SUERTATUTAKO ETXEBIZITZA SOBERAKINAK ESLEITZEKO ERREGISTRO IRAUNKORRA IREKITZEA ETA ETXEBIZITZEN ONURADUN IZATEKO BALDINTZEN ALDAKETA ONARTZEA. >>

Azalduko guztiaren arabera,



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

**IRIZPENA**

Ondorioz, 2013ko irailaren 23ko Hirigintza eta Zerbitzu Batzorde informatzaileak, boto hauekin:

Alde: Iñaki Agirrezabalaga (Bildu)
Maitane Agirre (Bildu)
Emiliano Cabañas (PSEE)
Aurka:
Abstentzioa: Isidro Fernandez (EAJ)

jarraian azaltzen den PROPOSAMENARI ALDEKO irizpena eman dio, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 151 artikuluak xedatutakoaren arabera eta proposamen hau udalbatzaren osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du. Osoko udalbatzak hartu beharko du erabakia, bertan daudenen gehiengo soilaz, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan eta Toki Erakundeetako Ondasunen Arautegia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 114. artikuluan ezarritakoaren arabera:

1.- 07 HA-ARDANTZABIDEKO 7.1 ETA 7.2 PARTZELATAN 32 ETXEBIZITZEN –UDAL SALNEURRI TASATUAN-ZOZKETATIK SUERTATUTAKO ETXEBIZITZA SOBERAKINAK ESLEITZEKO ERREGISTRO IRAUNKORRA IREKITZEA ETA ETXEBIZITZEN ONURADUN IZATEKO BALDINTZEN ALDAKETA ONARTZEA.

2.- ERABAKIA GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN ETA UDALEKO IRAGARKI TAULAN ARGITARATZEA.

HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK BATZORDEBURUA
Iñaki Agirrezabalaga Alkorta>>

Alkateak gaia aurkeztu du.

Xabier Gallastegik (EAJ-PNV) nabarmendu du udal-gobernuak frontoiaren arazoari eman ari dizkion bueltak; 2011an SUKIAri esleitu zitzaionean dena ondo lotuta omen zegoela, baina ez dela hala izan, izan ere, berriro baldintza pleguak publikatu behar izan ziren eta promotore bakarra aurkeztu zen. Orain, berriro, promotoreak arazoak dituenean udal-gobernua ordenantzak aldatzeko prest azaldu dela azpimarratu du. Gainera, nabaritu du, udal-gobernuak promotoreen interesak lehenesten dituela zumaiarren interesen gainetik. Ondoren, ezker abertzalearen etxebizitza politika zalantzan jarri du; frontoia eginagatik ere, ezin dela egin edozein modutan adierazi du; Ordenantzaren aldaketaren aurrean ez daudela ados edozein kanpotarra horrelako etxebizitzaren jabe izateko aukerarekin eta baldintza berriekin zumaiar guztiei aukera zabaldu beharko zitzaiela esan du; bukatzeko, obraren bideragarritasun plana aurkeztea eskatu du eta



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

argitu du frontoiaren eraikuntza ez dutelako oztopatu nahi abstentzioa emango dutela.

Emiliano Cabañasek (PSE-EE) esan du batzordean ohartarazi zuela baldintzak hobetzeagatik ere, finean bankuen esku geratzen dela kreditua ematea ala ez esan du; gaineratu du, kreditua lortuta ere gero arazoak sortu litezkeela bueltatzeko hain errenta maila baxuetan.

Aitor Leizak (ARALAR) adierazi du frontoiaren hasiera atzeratu dela bere garaian gauzak ez zirelako behar bezala lotu.

Alkateak argitu du lehenengo esleipena ezerezean geratu ostean, bigarren lehiaketara bi lizitatzaile aurkeztu zirela. Promotore guztiak udaletxetik pozik ateratzen direnaren aurrean, esan du ez duela uste oso pozik egongo direnik kutxarak geldirik dituzten promotore horiek. Bukatu du esanez, beste batzuk promotorearen obligazioa betearazteko gauza ez zirenen aldean, eurek sustatzaileari 3.700.00 € partzela kendu ziotela.

Ondoren, zinegotziek bozkatzeari ekin diote:

**ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **8 boto** (6 BILDU, , 1 PSE-EE, 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **5 boto (**5 EAJ-PNV)

**ERABAKIA:**

1.- 07 HA-ARDANTZABIDEKO 7.1 ETA 7.2 PARTZELATAN 32 ETXEBIZITZEN –UDAL SALNEURRI TASATUAN- ZOZKETATIK SUERTATUTAKO ETXEBIZITZA SOBERAKINAK ESLEITZEKO ERREGISTRO IRAUNKORRA IREKITZEA ETA ETXEBIZITZEN ONURADUN IZATEKO BALDINTZEN ALDAKETA ONARTZEA.

2.- ERABAKIA GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN ETA UDALEKO IRAGARKI TAULAN ARGITARATZEA

----------------------------

**3.3 ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN LAUGARREN ALDAKETARI, 19. H.A. OIKIA, BEHIN BETIKO IZAERAZ ONARTZEA, BIDEZKO BADA**

**<<2013KO IRAILAREN 23KO HIRIGINTZA BATZORDEA INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN LAUGARREN ALDAKETARI, 19,H.A OIKIA, DAGOKIONARI. BEHIN BETIKO ONARPENA.**


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

**AURREKARIAK**

**1.-** Ikusirik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2008ko Maiatzaren 22an egindako eskaera, non 3.000m$^2$.ko lursail baten lagapena eskatzen zen, bertan Haur Hezkuntzako bi unitate eta Lehen Hezkuntzako 3 unitateko Eskola berri bat eraiki ahal izateko.

**2.-** Ikusirik, 2008ko Maiatzean Udal Arkitekto teknikoak eta Hezkuntzako Teknikariak sinatutako txostena non Oikiako eskolaren egoera txarra eta eraikin baten beharraren premia azaltzen den.

**3.-** Udal Zerbitzu teknikoek idatzitako Zumaiako Arau Subsidiarioen laugarren Aldaketa, 19,H.A,-ri dagokiona.

**4.-** Ikusirik Ekos Estudios Medioambientales S.L.U.k egindako Egitasmo Bereziaren ingurumenarekiko eraginaren ebaluazioaren Azterketa.

**5.-** Ikusirik Dokumentua aurrez 2012ko Maiatzaren 14ko Hirigintza Batzordean eta 2011ko Abendukako Hirigintza Aholku Batzordean informatu dela.

**6.-** Ikusirik 2012ko Apirilaren 27ko Ingurumen Sailburuordetzaren Ebazpena non planak ingurumenaren gainean izango duen eraginari buruzko aldez aurreko txostena azaltzen den.

**7.-** Ikusirik Udal Zerbitzu teknikoen txosten teknikoa.

**8.-** Kontuan izanik ezargarri den legeria eta arautegia, hau da:
-Zumaiako Arau Subsidiarioak.
-Euskal Herriko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legea.
-Euskal Herriko Ingurumena babesteko 3/1998 Legea.
-Ingurumen inpaktuaren ebaluazio bateratuaren prozedura arautzen duen 183/2003 Dekretua.
-Hainbat planek eta programek, ingurumenean duten eragina arautzen duen, apirilaren 28ko 9/2006 Dekretua.
-2001eko ekainaren 27ko 2001/42/CE Zuzentaraua eta aplikaziorako gida.

**9.-** Ikusirik 2011ko Abenduaren 12an opatutako bileran eta ondoren dokumentuari Hasierako Onarpena eman ondoren Zumaiko Hirigintza aholku Batzordea informatua izan zela.

**10.-** Ikusirik 2012ko Maiatzaren 31n Udalbatzak hasierako onespena eman ziola eta GAOn iragarkia argitaratu ondoren 45 eguneko agerraldi publikoan alegaziorik ez direla izan.

**11.-** Ikusirik Ingurumen Sailburuordetzak 2012ko Apirilaren 27an hartutako ebazpenean (ingurumen eraginaren aldez aurreko txostena egiteko ebazpena) zehaztutako dokumentazioa ere jaso dela.

**12.-** Ikusirik akats baten ondorioz ez zela hasiera batean prentsan iragarkia argitaratu eta ondoren 2012 Urriaren zamarrean Diario Vasco eta Berria egunkarietan iragarkia argitaratu zela**.**

**13.-** Ikusirik 2012ko Urriaren 10ean iragarkia argitaratu ondoren 45 eguneko agerraldi publikoan espedientea jendaurrean egon ondoren alegaziorik ez direla izan.

**13.-** Ikusirik 2012ko Uztailaren 23an 123/2012 DEKRETUA, uztailaren 3koa, hirigintzako estandarrei buruzko argitaratu zela eta Dekretu honetan xedatutakoaren aurka edo kontraesanean dauden arauzko xedapen guztiak indargabetuta geratzen direla; bereziki, ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak, Euskadiko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoak, 2., 3., 11. (2. paragrafoa), 15., 16., 17., 18., 19., 20., 21., 22., 24., 25., 26., 27., 28., 35., 36. eta 41. artikuluetan eta bigarren eta laugarren xedapen iragankorretan adierazitakoak indargabetuta geratzen direla.

**13.-** Ikusirik 2012ko Azaroaren 26ko Hirigintza Batzordean Udal Zerbitzu teknikoek idatzitako Zumaiako Arau Subsidiarioen laugarren Aldaketaren Testu Bateratua, 19. H.A.ri dagokiona, 123/2012 DEKRETUA, uztailaren 3koa, hirigintzako estandarrei buruzkoaren arabera egokitutako Dokumentua.

**14.-** Ikusirik Zumaiako Udaleko udalbatzak, 2012ko irailaren 27an egindako ohiko bilkuran, beste batzuen artean erabaki hau hartu zuela: ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN LAUGARREN ALDAKETARI, 19 H.A. - OIKIA DAGOKIONARI, BEHIN-BEHINEKO ONARPENA EMATEA.

**15.-** Ikusirik Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordeko 2/2013. bileran, Gipuzkoako Hirigintza Planeamenduari dagokion bileran, ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN LAUGARREN ALDAKETARI, 19 H.A. - OIKIA DAGOKIONAk jasotako aldeko txostena.



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

**16.-** Ikusirik 2013ko Uztailaren 23ko Ebazpena, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzarena, ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN LAUGARREN ALDAKETARI, 19 H.A. - OIKIA izeneko planak ingurumenaren gainean izango duen eraginari buruz behin betiko txostena.

**IRIZPENA**

Ondorioz, 2013ko Irailaren 23ko Hirigintza Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Iñaki Agirrezabalaga (Bildu)
Maitane Agirre (Bildu)
Emiliano Cabañas (PSEE)
Isidro Fernandez (EAJ)

Aurka:

Abstentzioa:

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

**LEHENA.-** Udal Zerbitzu teknikoek idatzitako Zumaiako Arau Subsidiarioen laugarren Aldaketaren Testu Bateratuari, 19. H.A.ri dagokionari BEHIN BETIKO onespena ematea, Ekos Estudios Medioambientales S.L.U.k egindako Egitasmo Bereziaren ingurumenarekiko eraginaren ebaluazioaren Azterketa barne eta 123/2012 DEKRETUA, uztailaren 3koa, hirigintzako estandarrei buruzkoaren arabera egokitutako Dokumentua.

**BIGARRENGOA:** 2013ko Uztailaren 23ko Ebazpena, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzarena, ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN LAUGARREN ALDAKETARI, 19 H.A. - OIKIA izeneko planak ingurumenaren gainean izango duen eraginari buruz behin betiko txostena dokumentuan barneratzea arautegi modura.

**HIRUGARRENGOA:** Onartutako dokumentua Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora eta Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordera bidaltzea eta erabakia eta agiri bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea.

HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK BATZORDEBURUA

Iñaki Agirrezabalaga Alkorta**>>**

Alkateak gaia aurkeztu du eta, jarraian, bozkatzeari ekin diote.

## ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: **13 boto** (6 BILDU, 5 EAJ-PNV , 1 PSE-EE, 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **0 boto**

**ERABAKIA**:

**Lehena.-** Udal Zerbitzu teknikoek idatzitako Zumaiako Arau Subsidiarioen laugarren Aldaketaren Testu Bateratuari, 19. H.A.ri dagokionari, BEHIN BETIKO onespena eman zaio, Ekos Estudios Medioambientales S.L.U.k egindako Egitasmo Bereziaren ingurumenarekiko eraginaren ebaluazioaren Azterketa barne eta 123/2012 DEKRETUA, uztailaren 3koa, hirigintzako estandarrei buruzkoaren arabera egokitutako Dokumentuari, hain zuzen ere.


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

**Bigarrengoa:** 2013ko Uztailaren 23ko Ebazpena, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzarena, ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN LAUGARREN ALDAKETARI, 19 H.A. - OIKIA izeneko planak ingurumenaren gainean izango duen eraginari buruz behin betiko txostena dokumentuan barneratzea arautegi modura.

**Hirugarrengoa:** Onartutako dokumentua Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora eta Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordera bidaltzea eta erabakia eta agiri bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea.

----------------------------

**4.- ESKARIAK ETA GALDERAK**

1.- Montse Aranak (EAJ-PNV) Zumaia.net azaldu dela "beheko plaza" gaiaren inguruan herritarren partaidetza zabaldu dela.

Alkateak zehaztu du informazio prozesua dela eta ez partaidetza prozesua. Astearte eta ostegunean zabalduko den informazio prozesua.

2.- Montse Aranak (EAJ-PNV) hondakinen mahaiaren inguruan esan du batzordean ez dela ezer aipatu eta gaia nola dagoen galdetu du.

Alkateak esan du udaleko eta mankomunitateko teknikariak bilduta egon direla arazo teknikoak definitu eta zuzentzeko eta, mahaia deitzeko asmoa duela erabakiak hartu behar baitira.

----------------------------

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak eta berrogei eta bost minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

**ACTA DE LA SESIÓN PLENARIA nº 70**

En la villa de Zumaia, siendo las diecinueve horas del día veintiséis de septiembre de dos mil trece, se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial el Pleno del Ayuntamiento, al objeto de celebrar sesión extraordinaria con arreglo al orden del día previamente señalado y habiendo sido citadas en tiempo y forma, acuden los siguientes miembros de la corporación:

| | |
|---|---|
| **Presidente:** | Sr. Iñaki Agirrezabalaga Alkorta |
| **Concejales:** | Sra. Arritokieta Gonzalez Elosua |
| | Sr. Iñaki Ostolaza Esnal |
| | Sr. Azis Alberdi Zaldunbide |
| | Sr. Eneko Agirre Maiora |
| | Sra. Maitane Agirre Arrieta |
| | Sr. Montse Arana Perez |
| | Sr. Juan Carlos Cendoya Aizpurua |
| | Sra. Edurne Egaña Manterola |
| | Sr. Xabier Gallastegi Idigoras |
| | Sr. Isidro Fernandez Echave |
| | Sr. Aitor Leiza Alberdi |
| | Sr. Emiliano Cabañas Gonzalez |
| **No presentes** | |
| **Secretario:** | Gorka Urgoiti Agirre |
| **Interventor:** | Mikel Zubizarreta Elicegui |



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• e-posta: komunikazioa@zumaiakoudala.net

**ORDEN DEL DÍA**

## 1.- Toma de posesión del cargo de concejal de EH-BILDU por D. Peru Fernández-Arroiabe Txapartegi

El alcalde ha presentado a Peru Fernandez-Arroiabe y éste ha tomado posesión del cargo de concejal ante el pleno.

## 2.- <u>Hacienda</u>

## 2.1.- Aprobar, si procede, la cuenta general del 2012 del Ayuntamiento de Zumaia.

*Informe y dictamen de la Comisión Especial de Cuentas, en relación a la aprobación de la Cuenta General del 2012 tras haber sido expuesto al público durante 15 días y no haberse presentado ni reclamaciones, ni reparos u observaciones.*

**INFORME DE LA COMISIÓN ESPECIAL DE CUENTAS: CUENTA GENERAL 2012**

Se reúne la Comisión Especial de Cuentas el 17 de septiembre de 2013 a las 18.20 con los siguientes asistentes:

- Arritxu Gonzalez (BILDU)
- Montse Arana (EAJ)
- Edurne Egaña (EAJ)
- Emiliano Cabañas (PSOE)
- Aitor Leiza(Aralar)
- Miguel Zubizarreta Elicegui: Interventor.

*El interventor explica ante la Comisión que la Cuenta General del 2012 junto al informe inicial de la Comisión Especial de Cuentas, fue expuesto al público durante un plazo de 15 días, durantes los cuales, los interesados no presentaron ni reclamaciones, reparos u observaciones y que esta Cuenta General debe ser sometida al Pleno de la Corporación para su aprobación.*

*Edurne Egaña ( PNV) comenta que técnicamente la Cuenta General le parece correcta, pero añade, que no está de acuerdo con el destino que se le ha dado al presupuesto, es decir, en que se ha gastado.*

